

IVAPek hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko deialdia (2024/01/19)

IVAPek Hizkuntz Eskakizunak egiaztatzeko deialdia egin du. Berau arautzen duen 2024ko urtarrilaren 19ko Ebazpena otsailaren 1ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da.

Nork har dezake parte deialdi honetan?

Deialdi honetara aurkeztu ahalko dira bai funtzionarioak eta lan-hitzarmen finkodunak, bai bitarteko funtzionarioak, baita aldi baterako kontratua duten langileak ere, eskabideak aurkezteko epearen barruan kontratua indarrean badute.

Eskabide-orria aurkezteko epea

2024ko otsailaren 2tik 15era arte, biak barne.

Nola egin eskabidea?

Otsailaren 2tik 15era arte

Eskaerak Interneteko AZTERNET aplikazioaren bidez kudeatuko dira (www.ivap.euskadi.eus/azternet). Horrexen bidez aurkeztu beharko dute interesdunek eskaera, onartutako ziurtagiri digitalen bidez identifikatuta. Ziurtagiri horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan kontsultatu daitezke (<https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>).

Eskabidea egiteko, jo helbide honetara:

[izena emateko eskabidea.](#)

AZTERNETen identifikatu ostean, eskabidea egin ahal izateko, ibilbide hau jarraitu beharko da: “Eskabideak<Hizkuntza-eskakizunak<Eskabide berria”.

Baztertu egingo dira eskabideak baldin eta gorago zehaztutakoez bestelako modu batean aurkezten badira.

Convocatoria de acreditación de perfiles lingüísticos del IVAP (19/01/2024)

El IVAP ha realizado una nueva convocatoria de acreditación de Perfiles Lingüísticos. La Resolución de 19 de enero que la regula se ha publicado, en el Boletín Oficial de País Vasco, el día 1 de febrero de 2024.

¿Quiénes pueden presentarse a esta convocatoria?

A esta convocatoria podrán presentarse, tanto los y las funcionarias y personal laboral fijo como las y los funcionarios interinos y los contratados y las contratadas temporales con contrato en vigor durante el período de presentación de solicitudes.

Plazo de presentación de solicitudes

Del 2 al 15 de febrero de 2024, ambos inclusive.

¿Cómo se realiza la solicitud?

Del 2 al 15 de febrero

Las solicitudes se gestionarán a través de la aplicación de Internet AZTERNET (www.ivap.euskadi.eus/azternet), que permite a las personas interesadas presentar su solicitud identificándose mediante alguno de los certificados digitales admitidos, que pueden consultarse en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi (<https://www.euskadi.eus/sede-electronica/>).

Para realizar la solicitud acceda a la siguiente dirección:

[formulario de inscripción.](#)

Después de identificarse en AZTERNET, para poder realizar la solicitud se deberá seguir la siguiente ruta: “Solicitudes<Perfiles Lingüísticos<Nueva solicitud”.

Aquellas solicitudes realizadas por un medio distinto a los señalados anteriormente serán excluidas.

Deialdi honetan parte hartzearekin lotutako izapide guztiak egin eta kontsultatu behar izango dira AZTERNETen bidez. Hartara, aplikazioan sartzeko, onartuta dauden eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>) kontsultatu daitezkeen ziurtagiri digitaletako batekin identifikatu beharko dira interesdunak.

Azterketa idatziaren emaitza gordetzea.

IVAPeko zuzendariaren 2023ko abuztuaren 1eko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdian idatzizko azterketa gainditu dutenek (ulermena eta idazmena), baina deialdi horretako ahozko azterketa gainditu ez badute edo aurkeztu ez badira, ez dute egin beharko Ebazpen honen bidezko deialdiari dagokion idatzizko azterketa. Beraz, zuzenean aurkeztuko dira ahozko azterketara. Hala ere, egoera horretan dauden izangai guztiak izena eman beharko dute nahitaez deialdi honetan, dagokion epearen barruan.

Era berean, deialdi honetan idatzizko azterketa gainditu baina ahozkoa gainditu ez dutenek, edo aurkezten ez direnek, emaitza horri eutsiko diote IVAPen 2024ko bigarren ohiko deialdira arte. Deialdi horretan, berriro eman beharko dute izena, dagokion epearen barruan.

Norbaitek zalantzarik izanez gero, GUFeko Euskara eta Trebakuntza arlora deitu ahal du **(944067657-944067669 telefonoetara)**

Todos los trámites relacionados con la participación en esta convocatoria se deberán realizar y consultar a través de AZTERNET. Para ello, las personas interesadas deberán identificarse mediante alguno de los certificados digitales admitidos que pueden consultarse en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi (<https://www.euskadi.eus/sede-electronica/>).

Conservar la nota del examen escrito.

Quienes hayan aprobado el examen escrito (comprensión y expresión escrita) en la convocatoria de acreditación de perfiles lingüísticos del 1 de agosto de 2023 de la Directora del IVAP, y hayan suspendido el examen oral de dicha convocatoria, o no se hayan presentado, estarán exentos de realizar el examen escrito de la convocatoria realizada a través de esta Resolución. Por lo tanto, se presentarán directamente al examen oral. Todas las personas aspirantes que se encuentren en esa situación, no obstante, deberán inscribirse necesariamente en esta convocatoria dentro del plazo correspondiente.

Asimismo, quienes en esta convocatoria aprueben el examen escrito pero suspendan el oral, o no se presenten, conservarán dicho resultado hasta la segunda convocatoria ordinaria de 2024 del IVAP, en la que tendrán que volver a inscribirse dentro del plazo correspondiente.

En caso de existir dudas al respecto pueden consultarse en el IFAS Área de formación y euskera **(teléfonos 944067657-944067669)**.